

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: **21**
Nork aurkeztu du: **Ortuellako Udala**
Aurkezpen data: **2021/12/30**

Sugerencia N°: **21**
Presentada por: **Ayuntamiento de Ortuella**
Fecha de presentación: **30/12/2021**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

0. Iruzkina orokor gisa, LPParen eta garapen ekonomikoko hirigintza-dinamiken artean dagoen etengabeko desoreka aipatzen da, eta horrek zalantza sortzen du, hasierako onarpen-dokumentua erreferentzia gisa mantentzea proposatuz, edo lurraldeko sistema orokor egituratzaileak jasoko dituen dokumentu bat egitea, garapen jasangarriaren irizpideei jarraiki.

1. Udalerrian jarduera ekonomikoetarako proposatzen den lurzoru-erreserban jasotzen den "balio estrategiko handia" kategorizazioaren ordean "trantsizioko landa-paisaia" kategoria jartzeko eskatzen da.

2. Orconera aldean "harrobia" erreferentzia kentzea proposatzen da, eta Mina Bilbao eremuan sartzea.

3. planoan zerbitzu ekosistemikoak dituzten elementuak agertzen dira Nocedalen eta Peñotan, ez dagoelako horrelako elementurik.

4. 3 puntuko gogoeta berberak egiten dira, baina 3.1 planoari aplikatuta.

5. Mina Bilbao harrobia eta Orconerako zabortege Meaztegi metropoli-parkearen eremutik kanpo uzteko eta parke horren mugaketa-lerroa aldatzeko eskatzen da, erantsitako proposamen grafiko baten arabera.

6. Adierazten da 5. planoan itzaleztatuta dauden eremu jakin batzuk, hala nola "higatu daitezkeen eta arrisku geologikoak dituzten eremuak", ez direla horrelakoak, eta, beraz, kentzea proposatzen da.

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

0. Como comentario genérico, se menciona el desajuste permanente que existe entre el PTP y las dinámicas urbanísticas de desarrollo económico, lo que genera incertidumbre, proponiendo mantener el documento de aprobación inicial como referencia, o elaborar un documento donde se recojan los sistemas generales estructurantes del territorio, bajo los criterios de un desarrollo sostenible.

1. Se solicita que la categorización de "Alto Valor Estratégico (AVE)" que se recoge en la reserva de suelo para actividades económicas que se propone en el municipio sea sustituida por la de "Paisaje Rural de Transición (PRT)".

2. Se propone eliminar la referencia "Cantera" en la zona de la Orconera e incluirla en la zona de Mina Bilbao.

3. Se observa que en el plano nº3 aparecen elementos con servicios ecosistémicos en Nocedal y en Peñota de forma errónea, por no existir tales elementos.

4. Se realizan las mismas consideraciones que en el punto 3, pero aplicadas al plano 3.1.

5. Se solicita que la cantera Mina Bilbao y el vertedero de la Orconera sean excluidos del ámbito del Parque Metropolitano Meaztegi y se modifique la línea de delimitación de este parque según una propuesta gráfica que se adjunta.

6. Se señala que determinadas áreas sombreadas en el plano nº5 como "áreas erosionables y con riesgos geológicos" no son tales, por lo que se propone su eliminación.





7. LPPko 6. planoko Onura Publikoko Mendi gisa mugatutako eremua aldatzeko eskatzen da, Cadegal, Las Losinas eta Orconera auzoetako magalak kenduz, Ortuellako hiri-bilbearekin elkartzen den arte.

8. 1. iradokizunean egindako eskaera bera egin da, baina 9. planoan zehaztuta.

9. Jakinarazi da udal-ekipamendu batzuk jaso direla 10. planoan, hala nola Espazio Libreen eta Eremu Berdeen Sistema Orokorak.

10. Erantsitako dokumentazio grafikoan mugatutako hirigunearen hegoaldeko eremu bateko Espazio Libreen eta Eremu Berdeen Sistema Orokor gisa aldatzea eskatzen da, eta HAPOn berrikuspenaren irizpidearen arabera kalifikatzea.

11. Orconerako zabortegia eta Cadegal, Orconera, Las Losinas eta beste auzo batzuk Meaztegi metropoli-parkearen mugaketatik kanpo uztea eskatzen da, eta eremu horretan muga berri bat jartzea proposatzen da.

12. Adierazi da beharrezkoa dela 13. planoan metro-geltokia sartzea, Ortuellan egingo den Cocheras instalazioari lotuta, Kabiezesko egungo geltokiaren jarraipen gisa.

13. 11. iradokizunean egindako eskaera bera egin da, baina 20. planoan zehaztuta.

14. Eskatzen da, 23. planoan, Ortuellan aurreikusitako lurzoru urbanizaezineko jarduera ekonomikoen erreserbak bere mugaketan barne har ditzala aisialdiko baratze mugakideak eta A-8 autobidearen iparraldeko lurzoruak.

15. Proposatzen da lurzoru urbanizaezinean jarduera ekonomikoen erreserba, 29. planoan, baratze, labore eta abarren antzinako nekazaritza-paisaia gisa kalifikatuta ez egotea eta, hala badagokio, haren mugaketa doitzea (14. iradokizunean oinarrituta ulertzen da).

7. Se solicita modificar el ámbito delimitado como Monte de Utilidad Pública del plano nº6 del PTP, eliminando las laderas de los barrios Cadegal, Las Losinas y Orconera, hasta su encuentro con la trama Urbana de Ortuella.

8. Se realiza la misma solicitud que en la sugerencia nº1, pero particularizada al plano nº9.

9. Se informa que una serie de equipamientos municipales han sido recogidos, en el plano nº10, como Sistemas Generales de Espacios Libres y Zonas Verdes.

10. Se solicita la modificación como Sistema General de Espacios Libres y Zonas Verdes de un ámbito de la zona sur del casco urbano delimitado en la documentación gráfica adjunta y dejar su calificación a criterio de la revisión del PGOU.

11. Se solicita dejar fuera de la delimitación del "Parque Metropolitano Meaztegi" el vertedero de la Orconera y los barrios de Cadegal, Orconera, Losinas, etc., proponiéndose un nuevo límite en esa zona.

12. Se señala la necesidad de incluir en el plano nº13 la estación de Metro, ligada a la instalación de cocheras que está previsto construir en Ortuella, como continuación de la actual estación de Kabiezes.

13. Se realiza la misma solicitud que en la sugerencia nº11, pero particularizada en el plano nº20.

14. Se solicita que, en el plano nº23, la reserva para Actividades Económicas en suelo no urbanizable prevista en Ortuella incluya en su delimitación las huertas de ocio colindantes y los suelos del lado Norte de la autopista A-8.

15. Se propone que la reserva de Actividades Económicas en suelo no urbanizable no esté calificada, en el plano nº29, como antiguos paisajes agroagrarios de huertas, cultivos, etc. y ajustar, en su caso, su delimitación (se entiende que en base a la sugerencia nº 14).





IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

0. LPP gisako lurralde-plangintzako dokumentu baten eta errealitate fisiko eta urbanistikoaren artean dagoen desoreka saihestezina da, lurraldea etengabe aldatzen ari den heinean, bai ingurune naturalean bai hiri-habitatean, eta LPPren denbora-horizontea 16 urtekoa den heinean. Hala ere, gertaera hori HAPOarekin udal-eremuan gertatzen denaren berdina da.

Lurraldearen sistema egituratzaileak eta alegazio-egileak proposatutako garapen jasangarrirako irizpideak LPPn sartuta daude, Lurraldearen Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 11. eta 12. Artikuluak betez. Nolanahi ere, antolamendu-irizpide orokor horiek nagusitzen dira, eta ez dute zerikusirik denborak aurrera egin ahala sor daitezkeen desorekekin; hirigintza-plangintzak aztertu eta interpretatu beharko ditu desorekak.

1. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LPSren 10. artikulua b) letran ezartzen denez, *“udal-plangintzak berariaz jaso beharko ditu Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LPSk definitutako Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabaleko Balio Estrategiko Handiko Lurzoru Urbanizaezineko eremuei lotutako mugaketa eta araudia. Udal-plangintzak mugaketa hori handitu ahal izango du, LPS honetako helburu orokorretan oinarrituta justifikatuz”*.

Illo horretan, LPPn jasotako balio estrategiko handiko lurzoruak Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LPStik datoz, eta, beraz, ez da aldatu behar.

Kalifikazio hori egungo errealitatean oinarritzen da, eta ez du zerikusirik LPPn proposatzen diren hirigintza-garapenetarako proposamenekin. Proposamen horiek dagokion plangintza orokorrean gauzatu beharko dira.

Horregatik guztiagatik, ez da bidezkoa iradokizun hau baiestea.

2. Bi eremuen errealitate fisikoa eta egungo erabilerak eta jarduerak aztertu ondoren, egiaztatu da Orconera inguruan ez dagoela harrobi aktiborik, bai, ordea, Mina Bilbao inguruan; beraz, iradokizuna baietsi behar da.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

0. El desajuste que existe entre un documento de planificación territorial como el PTP y la realidad física y urbanística es inevitable, en la medida que el territorio está en constante transformación, tanto en el medio natural como en el hábitat urbano, y que el horizonte temporal del PTP es de 16 años. No obstante, este hecho no es diferente del que ocurre en el ámbito municipal con el PGOU.

Los sistemas estructurantes del territorio y los criterios de desarrollo sostenible que el alegante sugiere ya están incluidos en el PTP, en cumplimiento de los art. 11 y 12 de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio. Estos criterios generales de ordenación prevalecen, en cualquier caso, y son independientes de los desajustes que puedan ir surgiendo con el paso del tiempo, que deberán ser analizados e interpretados por el planeamiento urbanístico.

1. El art. 10 del PTS Agroforestal establece, en su apartado b), que *“el planeamiento municipal deberá recoger expresamente la delimitación y la normativa asociadas a las zonas de Suelo No Urbanizable Agroganadera y Campiña de Alto Valor Estratégico definidas por el PTS Agroforestal. Esta delimitación podrá ser ampliada por el planeamiento municipal justificándola en base a objetivos generales de este PTS”*.

En este sentido, la delimitación de los suelos de Alto Valor Estratégico (AVE) recogidos en el PTP proceden del PTS Agroforestal, por lo que no procede modificarla.

Esta calificación, basada en la realidad actual, es independiente de las propuestas de desarrollos urbanísticos que se proponen en el PTP y que se deberán materializar en el correspondiente planeamiento general.

Por todo ello, no procede estimar esta sugerencia.

2. Estudiada la realidad física y los usos y actividades actuales de ambas zonas, se constata que en la zona de la Orconera no existe ninguna cantera activa y sí en la zona de Mina Bilbao, por lo que procede estimar la sugerencia.





3. Aipatutako zerbitzu ekosistemikoak dituzten elementuak bat datoz Europar Batasunaren Intereseko Habitatarekin (*"HIC 6510 - Uzta-belardi atlantikoak, larreratu gabeak"*), eta GeoEuskadi geruza eguneratuenetik datoz (*"Ingurumena - Habitata"*), 2019koa, nahiz eta xehetasunetan jakinarazten den datuak 2010ean hartu zirela.

Aztertutako aldien arteko desoreka hori agerian geratu da Peñotako eremuan; izan ere, dagoeneko eraikita dago, eta, beraz, LPPko zehaztapen horiek ez diote eragiten.

Nocedalen kasuan, HIC 6510 gisa identifikatzea bat dator egungo errealitatearekin, eta, beraz, zerbitzu ekosistemikoa duen elementu gisa mantendu behar da.

Hirigintza-plangintzak aztertu eta interpretatu beharko ditu egon daitezkeen desorekak (Peñotaren kasuan bezala) edo denboraren poderioz sortzen joan daitezkeenak.

4. 3. puntuan egindako gogoeta berberak egin dira.
5. LPPk proposatutako metropoli-parkearen mugaketa *"Abanto-Zierbena, Ortuella eta Trapagarango Meatzealdean Babesteko eta Bertako Ingurumena eta Paisaia Leheneratzeko Plan Berezikoa"* da. Alde horretatik, metropoli-parkearen eremuaren perimetroa zuzena da, eta, beraz, ez da aldatu behar.

Hala ere, desoreka txiki batzuk antzeman dira Granada industrialdean eta Las Balsas eremuan, eta behin-behineko onarpen-dokumentuan zuzenduko dira.

6. Higagarriak diren eta arrisku geologikoak dituzten eremuen mugaketa grafikoa USLEren Higadura Errealaren kartografiatik dator, RUSLE ereduaren arabera berrikusia, zehazki higadura-prozesu larri, oso larri eta muturrekoekin katalogatutako eremuetatik. Informazio hori GeoEuskadin jasota dago (Ingurumena - Higadura - Higadura Erreala, RUSLE ereduaren arabera). Informazio hori aztertuta, egiaztatu da planoan sartutako eremuak higadura-prozesuen eraginpean daudela, eta, beraz, ez direla ezabatu behar.

3. Los elementos con servicios ecosistémicos mencionados se corresponden con el Hábitat de Interés Comunitario *"HIC 6510 - Prados de siega atlánticos, no pastoreados"*, y proceden de la capa de GeoEuskadi *"Medio Ambiente - Hábitats"* más actualizada, fechada en 2019, si bien en sus detalles se informa que la toma de datos concluyó en 2010.

Este desfase entre periodos analizados queda evidenciado en el área de Peñota, que, efectivamente, ya está edificada, y a la cual, por tanto, no le afectan estas determinaciones del PTP.

En el caso de Nocedal, su identificación como HIC 6510 es acorde con su realidad actual, por lo que sí procede mantener su inclusión como elemento con servicio ecosistémico.

Los posibles desajustes que existan (como en el caso de Peñota) o que puedan ir surgiendo con el paso del tiempo, deberán ser analizados e interpretados por el planeamiento urbanístico.

4. Se realizan las mismas consideraciones que las realizadas en el punto 3.
5. La delimitación del parque metropolitano propuesta por el PTP es la del *"Plan Especial de protección y recuperación ambiental y paisajística de la zona minera de Abanto-Zierbena, Ortuella y Trapagaran"*. En este sentido, el perímetro del ámbito del parque metropolitano es correcto, por lo que no procede modificarlo.

No obstante, se han detectado algunos pequeños desajustes en la zona del Polígono Granada y Las Balsas, que serán corregidos en el documento de aprobación provisional.

6. La delimitación gráfica de las áreas erosionables y con riesgos geológicos proviene de la cartografía de Erosión Real de la USLE, revisada según el modelo RUSLE, concretamente de las zonas catalogadas con procesos erosivos graves, muy graves y extremos. Esta información se encuentra recogida en GeoEuskadi (capa Medio Ambiente - Erosión - Erosión Real según el modelo RUSLE). Analizada esta información, se constata que las áreas incluidas en el plano





están efectivamente afectadas por procesos erosivos, por lo que no procede eliminarlas.

Gainera, ikusten da higadura-arrisku bera duten beste eremu batzuk ez direla 5. planoan jaso, eta, beraz, behin-behineko onarpen-dokumentuan sartu behar dira.

Además, se observa que existen otras áreas con el mismo riesgo de erosión que no han quedado recogidas en el plano nº5, por lo que procede incluirlas en el documento de aprobación provisional.



Hala ere, mugaketa grafiko horrek LPPren eskalan baino ez du balio; izan ere, RUSLE ereduak erabilitako metodologia zabalagoa eta konplexuagoa da, eta hainbat emaitza aurreikusten ditu, lan-eskalaren, xehetasun-mailaren eta azterketarako eskuragarri dagoen informazio-kopuruaren arabera. Horregatik, plangintza orokorrak RUSLE eredu edo antzekoa aplikatu ahal izango du, udalaren eskalara eta xehetasun-mailara egokituta, eta horrek, ziurrenik, LPParekin bat ez datozen emaitzak ekarriko ditu. Alderdi hori jarraibide berri batean jaso da (43.3.g) artikuluan).

No obstante, esta delimitación gráfica es válida únicamente en la escala del PTP, ya que la metodología empleada por el modelo RUSLE es más amplia y compleja, y contempla diferentes resultados según la escala de trabajo, el grado de detalle y cantidad de información disponible para el estudio. Por ello, el planeamiento general podrá aplicar el modelo RUSLE, o similar, adaptado a la escala y nivel de detalle municipal, que dará lugar, previsiblemente, a resultados no coincidentes con los del PTP. Este aspecto se ha recogido en una nueva directriz (art. 43.3.g)).

7. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, iradokizunen fase honetan, onura publikoko mendien geruza eguneratu bat aurkeztu du, hasierako onarpen-dokumentuan jasotakoaren orde, GeoEuskadikoa zena. Geruza berri horretan, iradokizunaren xede diren lurzorua ez daude gainjarritako baldintzatzaile horren eraginpean, eta horrela jasoko da behin-behineko onarpen-dokumentuko dokumentazio grafikoan.

7. El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia ha aportado, durante esta fase de sugerencias, una capa actualizada de los Montes de Utilidad Pública, la cual sustituirá a la recogida en el documento de aprobación inicial, que procedía de GeoEuskadi. En esta nueva capa, los suelos objetos de la sugerencia no están afectados por este condicionante superpuesto, y así se recogerá en la documentación gráfica del documento de aprobación provisional.

8. 1. puntuan azaldutako arrazoi berberengatik, ez da bidezkoa iradokizun hau baiestea.

8. Por las mismas razones expuestas en el punto 1, no procede estimar esta sugerencia.





9. Aipatutako eremuetan garatzen diren erabilerak eta errealtate fisikoa aztertu ondoren, egiaztatu da horiek guztiak bat datozela ekipamendu-eraikinekin, eta, beraz, egokia da iradokizun baiestea eta Espazio Librean eta Eremu Berdeen Sistema Orokorren mugaketatik kentzea.

10. Iradokizunean adierazitako eremua ez da LPPren proposamen bat, baizik eta indarrean dagoen udal-plangintzatik dator. Bai BFaren Planeamenduko GISean, bai Udalplanen, adierazitako eremua Sistema Orokorrean jotzen da, eta, beraz, bi iturrien akatsik ezean, dokumentuan jasotako kalifikazioa zuzena da.

Hala ere, HAPOn berrikuspenak eremu horren kalifikazioa berraztertu eta, hala badagokio, aldatu dezake, horretarako eskumena baitu.

11. 5. puntuaren azalduetako arrazoiengatik, ez da bidezkoa iradokizun hau baiestea.

12. Baietsi egiten da iradokizun, eta eskerrak ematen zaizkio egindako ekarpenengatik.

13. 5. puntuaren azalduetako arrazoiengatik, ez da bidezkoa iradokizun hau baiestea.

14. LPPan Ortuellako jarduera ekonomikoetarako lurzorua erreserbatzeko jasotako mugaketa orientagarria da. Garapen-plangintzak zehaztuko du zer mugapen zehatz duen kokatuta dagoen ingurunean. LPPren planoen interpretazioan nahasterik ez sortzeko, dokumentuaren hurrengo faseari begira, mugaketa horren geometria sinplifikatzea hartuko da kontuan.

15. Paisaiaren kalitatearen helburuak egungo errealtatean eta indarrean dagoen lurzoruaren sailkapenean (kasu honetan urbanizaezina) oinarrituta daude, eta indarrean mantendu behar dira eremu hori birkalifikatzen ez den bitartean; hori dagokion plangintza orokorrean gauzatu beharko da. Arrazoi beragatik, ez da egokia eremuaren mugaketa aldatzea.

9. Estudiada la realidad física y los usos que se desarrollan en las zonas señaladas, se constata que todas ellas se corresponden con edificios de equipamiento, por lo que procede estimar la sugerencia y eliminarlas de la delimitación de Sistemas Generales de Espacios Libres y Zonas Verdes.

10. La zona señalada en la sugerencia no es ninguna propuesta del PTP, sino que procede del planeamiento municipal vigente. Tanto en el GIS de planeamiento de la DFB como en Udalplan, la zona señalada está considerada como Sistema General, por lo que, salvo error de ambas fuentes, la calificación recogida en el documento es correcta.

No obstante, la revisión del PGOU puede reconsiderar y, en su caso, modificar la calificación de ese ámbito, ya que es competente para ello.

11. Por las razones ya explicadas en el punto 5, no procede estimar esta sugerencia.

12. Se estima la sugerencia y se agradece la aportación realizada en la misma.

13. Por las razones ya explicadas en el punto 5, no procede estimar esta sugerencia.

14. La delimitación recogida en el PTP para la reserva de suelo de actividades económicas de Ortuella es orientativa. Será el planeamiento de desarrollo quien definirá la delimitación exacta del mismo en el entorno donde se sitúa. Para no llevar a confusión en la interpretación de los planos del PTP se considerará de cara a la siguiente fase del documento la simplificación de la geometría de dicha delimitación.

15. Los objetivos de calidad paisajística (OCP) están basados en la realidad actual y la clasificación vigente del suelo (en este caso no urbanizable) y procede que se mantengan vigentes mientras no se produzca la recalificación de este ámbito, que se deberá materializar en el correspondiente planeamiento general. Por la misma razón, no procede modificar la delimitación del ámbito.

